

XVI. IGANDEA URTEAN ZEHAR (B)

Otoitza

Begira, Jauna, zeure zerbitzariei
eta emazkiezu ugari zeure graziaren dohainak,
fedeak, esperantzak eta maitasunak indarturik,
zure aginduetan erne iraun dezaten.
Zure Seme Jesu Kristo.

I. IRAKURGAIA: Jr 23, 1-6

*Neuk bilduko ditut nire artaldearen hondarrak,
eta zainduko dituzten artzainak sortuko dizkiet.*

Jeremias Profetaren liburutik

«Zoritxarrekoak, nire larreko ardiak galtzen eta sakabanatzen dituzten artzainak» –dio Jaunak–.
Horregatik honela mintzo zaie Jauna, Israelgo Jaungoikoa: «Nire herria zaintzen duzuen
artzainok, zuek sakabanatu eta galdu dituzue nire ardiak, eta ez duzue haien ardurarik izan. Kontu
eskatuko dizuet, zuen gaiztakeriagatik» –dio Jaunak–.

«Neuk bilduko ditut nire artaldearen hondarrak, Nik sakabanatu nituen lurralde guztietatik; beren
larreetara ekarriko ditut berriro, eta hazi eta ugarituko dira. Zainduko dituzten artzainak sortuko
dizkiet; ez dira inoiz beldurtuko, ez izutuko; bat ere ez da galduko» –dio Jaunak–.

«Begira, badatoz egunak –dio Jaunak–,
eta Dabidi legezko muskil bat sortuko diot.

Errege zentzuduna izango da;
eskubidea eta zuzentasuna ezarriko ditu lurrean.

Haren egunetan Juda salbatuko da
eta Israel kezkarik gabe biziko.

Eta hau izango du izen:

"Jauna gure susentasuna"».

ERANTZUN SALMOA: Sal 22, 1-3. 4. 5. 6

R/. **Jauna dut artzain,
ez naiz ezeren beharrean.**

Jauna dut artzain, ez naiz ezeren beharrean:

larre gurietan etzanarazten nau.

Atsedenezko iturrira narama

eta birbizten dit barrena.

Banarama bidezidor zuzenetatik

bere izenagatik. R/.

Ibar ilunetatik banabil ere, ez nago gaitz-beldur,

Zu nirekin baitzaude:

zure zigorra eta makila,

hauek dira nire poza. R/.

Atontzen didazu mahaia,
etsaiak dauzkadala begira;
olioz gantzutzen didazu burua,
gainezka dago nire edontzia. R/.

Zoriona eta grazia ditut aldean,
neure bizi guztiko egunetan;
eta Jaunaren etxean naiz biziko
luzaroen luzaro. R/.

II. IRAKURGAIA: Ef 2, 13-18

*Kristo da gure bakea;
bat egin ditu Berak bi herriak.*

San Paulo Apostoluak Efesotarrei

Senideok: Orain Jesu Kristorengan zaudete. Lehen urruti zeundetenok, orain hurbil aurkitzean zarete Kristoren odolaz.

Kristo da gure bakea; bat egin ditu Berak bi herriak, haiek bereizten zituen hesia –gorrotoa– bere haragiaz urraturik; berezko indarra kendu die Legeari eta aginduei, bakeak eginez, bi ziren haietatik gizaki berri bakarria sortzeko. Bi herri haiek Jainkoarekin baketu zituen gurutzearen bidez, gorputz batean bilduz, gorrotoari beregan heriotza ematen ziolarik.

Etorri zen eta bakearen berri ekarri zuen: bakea zuei urrutikoei eta bakea hurbilekoei; horrela Beraren bidez dugu batzuk eta besteok sarrera Aitarengana Espiritu bat-berarengan.

EBANJELIOA: Mk 6, 30-34

Aleluia: Jn 10, 27

R/. Aleluia.

V/. Nire ardiek aditzen dute nire mintzoa
–dio Jaunak–;
Nik ezagutzen ditut,
eta haiek ondotik datozkit. R/.

Artzainik gabeko ardiak bezala zeuden.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik

Aldi hartan, bildu ziren apostoluak Jesusengana, eta egin eta erakutsi zuten guztiaren berri eman zioten. Jesusek orduan honela esan zien: «Zatozte zuek bakarrik, leku baztertu batera, atsedean pixka bat hartzera». Askok baitziren zetozenak eta zihoazenak, eta jateko ere ez zieten astirik uzten.

Eta itsas ontzi batean leku baztertu eta baketsu batera joan ziren. Askok ikusi zituen joaten, eta ezagutu ere bai; eta oinez lasterka han bildu ziren hiri guztietatik; eta aurea hartu zieten.

Ontzitik ateratzean, Jesusek jendetza handia ikusi zuen; erruki izan zituen artzainik gabeko ardiak bezala baitzeuden; eta luze erakusten hasi zitzairen.

Oparigaien gainekoa

Jainko Jauna, Itun Zaharreko opari guztiak
beren betera ekarri dituzu gurutzeko opari bakarrean;
onar ezazu eta santu egin
zeure zerbitzarion eskaintza,
Abelena bedeinkatu zenuen bezala;
eta bakoitzak Zu goresteko eskaintzen duena
guztien salbamenerako izan dadila.
Jesu Kristo.

Jaunartze ondorengoa

Zaude beti, Jauna, zeure herriarekin;
eta sakramentu hauen graziaz bete dituzunei
emaiezu, beren izate zaharra utzirik,
jainkozko bizi berriaren erara bizitzea.
Jesu Kristo.